

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Maiatzak 10, 106. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




JUAN OSINAGA,
pilota garai
berrietara
egokitu
nahian



IMI:
Ordenadoreak

ARRASATE
KIROLAK

Kontzeiño 8, Tfnoa: 79 46 12 ARRASATE





Azkar ibili! Etzazula bihar negarrrik egin, gaur hainbeste ahaleginekin sortu dituzunengatik.
VASCONGADA, PREVIASA, GESA, LA ESTRELLA eta CAPISAreki, besteak beste, egiten dugu lan.

Eskaintza zabala:

- **Etxearen aseguru arriskuanitza**
- **Bizitza aseguru**
- **Komunitateen aseguru arriskuanitza**
- **Auto aseguru**
- **Denda eta bulegoen aseguru arriskuanitza**
- **Jubilazio plana**
- **Enpresa txiki eta ertainen aseguru arriskuanitza**
- **Osasun zerbitzuko aseguru pribatua**
- **Etab.**

ZATOZ GUGANA
Kalealdea 13 behea, Tfnoa: 77 00 78
ARRASATE
Agentea: Jose Luis MARTIN



Ur antzerki taldeak
aurkezten du:

"Antiheroes"

- **Maiatzak 18**
larunbata
- **Gaueko 10.30etan**
- **Amaia Antzokian**
- **Sarrera:500 pta.**
Gazte Txart.:300 pta.



ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Urizarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banáketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Uholde unibertsala

Kanpoaldean elurra mara-mara, errekek gainezka datozela eta urtegiatoko mailak azken bizpahiru urteotako marka guztiak gainditu dituen zentzazio bitxiak nire mahaira ekarri nau, aurtengoaren gisako negu-udaberri hezetsurik noiztik ez geneukan asmatzera gonbidatuko banindu bezala. Apirilaren larunbat arratsalde honetan eskertu egiten da sutondoaren epeltasuna. Zahartzearen beste ezaugarri bat izan liteke, baina nire lasaitasunerako alaba eta bere lagunen oihu eta xilioak iritsi zaizkit ondoko gelatik... kanpoko uholdeaz ari direlarik.

Eta belaunaldiz-belaunaldi gure gizartearen baitan bizirik dirauen Uholde Unibertsalaren gertaera biblikoak bidaia bat egiteko aukera eman dit, eurierauntsi haren zehazkizunetatik zehar. "Jainkoak, gizakiaren okerkeriaz jabeturik eta haren bihotzetik gaitzaren hazia ezabatzerik ez zegoela ikusita, Noe izeneko gizon zintzo bakarra aukeratu zuen, Noe bera, emaztea, seme-alabak eta lur gainean ziren animalietako pare bana Arka batera sar zitezten... egundoko euriak izango ziren eta"

Txiki txikitatik biblia ohiturretatik erakutsi diguten jazoera hori ez da bakarrik kristau erreferentzietan ematen. Aldiz, giza kultura desberdinetako jatorrietan aurki daitezke, eurijasa handi bati buruzko aipamenak. Hala eta guztiz ere,

badirudi uholdearen unibertsaltasuna ez dela hitzaren zentzu orokorrean hartu behar; aldiz, mitoaren hedapenak bihurtu omen du unibertsal, zenbait lurraldetan bakarrik izandako fenomeno. Kultura guztietan konstante bezala ageri dena, berriz, uholdearen zergatikakoa (gizakia zigortzeagatik) eta zertarakoa (gizadi desberdin eta hobea sortzeko) ditugu.

Izan al zen inoiz Noeren Arka? Armeniako Ararat mendian ipintzen du kristau tradizioak haren jar-tokia. Gure egunetan ere mendi hartaraino heltzen da, noizik behin, zientzi espedizioaren bat Arkaren bila. Armeniarrak eurak ere betidanik ari izan dira Noeren bizileku flotakorren atzetik. Horren harira bada babiloniar leienda bat, zeinek Arkaren kokalekua Armenian ipintzen duen arren, aintzinako armeniarrek Arkaren aztarnak zorioneko kutun bezala erabili zituztela adierazten duena. Horrela balitz, alperrikakoak espedizio guztiak!

Mitoaren garrantziak kultura guztietan gizakiaren gutxitasuna adierazten du. Mitoak ametsezko finkapena esan nahi du, unibertsorearen izkutuak ulertu ahal izateko gizakiak euskarri egokiak asmatu behar dituelarik, unibertsorearen infinitoa balduta senti ez dadin. Lau norabideetako elkargunean sortzen da mitoa. Horrexegatik Uholde Unibertsalarena ere.

Josemari Velez de Mendizabal

egizabal

Bidekurutzeta 13,
BERGARA

Elisabete



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92

ZANGITU C. B.

PINTURAK ETA PAPERAK
PINTATUAK

Helbide berria: OLARTE 29,

Alfonbra-likidazioa
Otalora 1ean

olioak, lientzoak,

Artea

akuarelak eta eskulanak

Ferrarias 11, Tfnoa: 77 10 95

ARAMAIO

okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

**Eskola arteko
Abesbatzen IV. Topaketak
direla eta**

Orain dela lau urte, Eskola arteko Abesbatzen Topaketak antolatzea aursartu ginenean, ez genuen espero lortzen ari den arrakasta izango zukeenik. Lehenengo hartan 5 korutan banatuta 300 haurrek parte hartu bazuten, aurtengoan 700 haur izan dira 12 talde osatuz, beraien lan nekeza baina emankor hau erakutsi digutenak.

Ikastolaren izenean nire zorionik beroenak eman nahi dizkiet parte hartu duten kultur-talde guztiei, agertutako maila oso altua izan bait da.

Bestalde, ekintza honen antolamenduan hainbat pertsonaren lan ezkutua behar izan dugu eta eurentzat ere nire eskerrona, dena ondo irten zedin egindako ahaleginagatik.

Hala ere, esku artean izan ditugun baliabideek ezin izan dute bete Amaia Antzokira hurbildu ziren guztien nahia, hainbat ikuslek ez bait zuen tokirik izan abestiez gozatzeko. Zenbait protesta eta erantzun txar jasan behar izan genuen arratsaldean zehar antzokia gainezka zegoelako.

Topaketa honen helburua kurtsoan zehar egindako lanaren fruitua guraso eta lagunei erakustea da, baina baita beste abeskideei ere eta, beraz, hainbat parte hartzaile eserita egon zen besteen emaitzak ikusi ahal izateko. Dena dela, erdia baino gutxiago sartu ziren, kontuan hartu bait genuen lagun asko hurbilduko zirela.

Hala eta guztiz ere, Amaia Antzokia txiki gertatu zen eta hau ikusirik datorren urteei begira beste antolamendu bat pentsatu beharko dugu, ea gure bailarako kantoreak txalotzeko aukera izaten dugun eta bide batez, arratsalde on bat pasa dezagun.

Apostu berri honekin V. Topaketa-ri gogoz ekingo diogu.

*Edurne Erasuskin
San Frantzisko Xabier Ikastolako
Zuzendaria*

Gehiegikeriarik ez!

Hiru urtetako behin-behineko kontratuak betetzeko hamabost egun baizik falta ez direnean, Roneo enpresak ezeztatu egin ditu aipatutako kontratuak. Kontuan izanik langile horiei mugagabeko lanpostua esakaintzeko egoeran dagoela Roneo, nahiko lan dagoenez, LABeko sekzio sindikalak kaleratze arrunta deitzen dio. Holako kasuetan erraz ikusten da lan arauak langileok aurkako ditugula. Ez ditugu bestalde, ahaztu behar langile hauek jasaten dituzten baldintzak, enpresaren komenientzian larunbatean eta gainerako langileek jai dutenean lan eginez... edo bestela kalerako bidea erakusten zaielaririk. Halako portaerari ez diogu bada, adarjotze eta lotsagabekeria deituko, iaz 20.000 aparteko ordu egin zirela baldin badakigu? Ez ote dute langile horiek eskubide eta merezimendurik lanpostu finkoa lortzeko?

LABen, barru hausnarketan gabiltzala, galderak bururatzen zaizkigu: noiz arte iraungo dute inposaketa eta prepotentzian oinarriturik dauden lan-harremanak? Aipatutako gaiari aldakuntza eta inposaketak gehitu behar dizkiogu (egutegi eta ordutegian)...; langileok makina tratamendua merezi ote dugu? Ez ote da hobe enpresako harremanak akordioan eta normalizazioan oinarritzea? Noiz arte halako egoera?

Roneoko LABeko sekzio sindikala

Ez dira agertzen guztiak

AED, ATB, Arrasate Press eta AEK-k ezezik (hauek HBko kartel batek aipatzen ditu) Ikastolak, Udal Euskaltegiak eta horiekin batera euskararen erabilpenerako Hitzarmenean parte hartzen duten beste hainbat ikastetxe, enpresa eta erakundeek ere bai euskarari diote Arrasaten.

Eskertzekoa da AEDko ekintzez gogoratzea, baina euskalgintzan dihardutenen arteko bereizkeriarik egitea ez zait bidezkoa iruditzen.


*Joxemari Mujika
AEDko lehendakaria*

Sekula bota dizute lorarik?



Eli Arrate
(Ikaslea)

Ez, sekula ere ez, edo behintzat ez dut gogoan halakorik bota didatenik.




Jesus Moreno
(Jubilatua)

Bai, gaztetan hala be... Zeresango dizut bada, "Adiós guapo" eta halako zerak. Eta neuk bota ere mordo. Gaztetan, gero eta oraintxe ere bai, zergatik ez ba? Ez dugu eskubiderik, ala?



Andoni Martinez
(Langabea)

Ezta sekula ere. Baina neuk bota izan ditut inoiz, "ederrori", "politori" eta halakoak, bururatutako lehen, piska bat pasatuta zoazen egunen baten.





Jaione Urrutia
(Langabea)

Niri? Inoiz ere ez, bizi guztian ere ez. Inork ez dit sekula lora polit bat esan. Baina zer egingo diogu, bada? Ez dut merezi izango eta...

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA



HAURTOKO A

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE

Memesa

79 42 22

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK
Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate



Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorioa	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULTZIAK

Gipuzkoako anbulantziak	45 87 44
-------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkartera	79 87 77
--	----------



10

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "Cyrano de Bergerac", 7 eta 9.30etan.
- Musakolako jaiak: Umeentzako jolasak, goizeko 10.15etan. Mus eta Bolo txapelketak, arratsaldeko 4etan. Ikurriña jasotzea, arratsaldeko 7etan. Dantzaldia, Berakatz Band taldearekin gaueko 10.30etan. Goizaldera sokamuturra.

11

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Cyrano de Bergerac", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Musakolako jaiak: Txikiteoa, dultzainero eta soinu-joleekin, eguerdiko 12.30etan. Herri-bazkaria, Kataiden eguerdiko 2.30etan. Bolo txapelketa eta Anker taldearekin dantzaldia gaueko

10.30etan. Goizaldea sokamuturra.

- Goardiako farmazia: egunez: Español, Iturriotz.
- gauez: Camacho (Bergara).

12

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Cyrano de Bergerac", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Musakolako jaiak: Erraldoi eta buruhandiak, goizeko 10.30etan. Rock jaialdia, DDDP eta EH Sukarra taldeekin, arratsaldeko 7.30etan. Azken traka, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: egunez: Corcuera, Musakola.
- gauez: Camacho (Bergara).

13

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Cyrano de Bergerac", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: egunez: Irizar, Erguin.
- gauez: Puy (Bergara).

14

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Cyrano de Bergerac", 7 eta 9.30etan.
- Mahaingurua, "Abortoa, hiru ikuspuntu", arratsaldeko 7etan, Monterronen.
- Goardiako farmazia: egunez: Amezua, Santamaina.
- gauez: Guallar (Bergara).

15

ASTEAZKENA

• • •

- Musakolako jaiak: suziri jaurtiketa eta Meza Nagusia, goizeko 11.30etan.
- Goardiako farmazia: egunez: Aurora Ruiz, Maala.
- gauez: Estella (Bergara).

16

OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

Kirol Agenda

TXIRRINDUA

• • •

- Mountain-Bike zeharbidea, Musakolan, larunbatean, goizeko 9etan.
- VIII. Musakola Saria, igandean, goizeko 10etan.

PILOTA

• • •

- Musakolako frontoian, larunbatean, goizeko 10.30etan.

HERRI KIROLAK

• • •

- Sokatira, Musakolan, larunbatean, arratsaldeko 5.30etan.
- Aizkolari eta Harrijasotzaileak, igandean, arratsaldeko 5etan.

AUTO-CROSSA

• • •

- Musakolan, larunbatean, arratsaldeko 6etan.

Txisteak

• Deba Garaiko III. Txiste Txapelketa

Duela bi urte Antzuolan eta Iaz Bergaran moduan, aurten Deba Garaiko Txiste Txapelketa Arrasaten egingo da, bigarren urtez AEKk antolatuta. Txapelketa bera, ekainaren 1ean burutuko da, Amaia antzokian, gaueko 11etatik aurrera.


Txapelketan parte hartzen dutenentzat, dohaineko afaria egiteko aukeraz gain, sari ederrak jarri dituzte: 30.000 pta. lehenengoari, 20.000 bigarrenari, eta 10.000 hirugarrenari.

Izena emateko epea, maiatzaren 27an bukatzen da, horretarako AEKra deitzea besterik ez dagoelarik, hau da, 79 71 12 telefono zenbakira.

Artea

• Zortzi lizentziatu berri

Datorren astean zehar, Monterronen Leioako Arte Ederretako Fakultatetik ateratako zortzi lizentziatu berrien obrak osatutako erakusketa ikusteko aukera izango da.



• Estibaliz Ormaetxea

Hilaren bukaera arte Estibaliz Ormaetxea, pintore arrasatearra, Oñatiko Etxe-Aundi Jatetxean bere lanekin osatutako erakusketa dauka.

Lana

• Gazte auzolandegiak

Maiatzaren 13tik aurrera Araba, Bizkaia edoeta Gi-



JAIK

San Isidroak Musakolan

Musakolako jai batzordekoek, San Isidro jaiak behar bezala ospatzeko ekintzaz betetako egitaraua osatu dute. Jaiak gaur bertan hasiko dira, arratsaldeko 7etan ikurrifia jasotzen dutenean, gero jubilatuentzat afaria, dantzaldia Berakatz Band taldearekin, eta sokamuturra goizaldera.

Larunbatean, kirolak izango dira protagonista: pilota eta pala partiduak, sokatira, eta bolo txapelketa. Tartean herri-bazkaria ere izango da, eta gauean Anker taldeak alaitutako dantzaizidaren ondoren, sokamuturra. Auto-krossa bertan behera gelditu da.

Dultzaineroek diana jo eta gero, Musakolan txirrindularien txanda izango da. Txistulariek txikiteoa alaituko dute eta arratsaldeko 5etan, harrijasotzaile, aizkolari eta ahari jokoarekin osatutako herri-kirol saioa. Herri-kirolen ostean rock-aren ordua, DDPP eta EH Sukarra taldeen eskutik.

Asteazkenean, San Isidro egunean, suzinak jaurtiko dira eta goizeko 11.30etan meza entzuteko aukera izango da.

puzkoako auzolandegietara joan nahi dutenentzat izena emateko epea irekiko da. Oion, Getxo, Trapaga, Ordizia... eta Elkarte Autonomoko beste toki askotan ekologia, berreraikuntza, arkeologia, etnografia, edo etnologia lanak egin nahi dituzten guztiak izena Gazteentzako Informazio Bulegoan eman beharko dute. Inskripzioa 5.000 eta 7.000 pezeta bitartekoa da

iganderako Aramaion, Elorza zenaren omenez, Mountain Bike zeharbidea prestatu du. Ibilbideak 25 kilometrotako luzeera izango du, eta irteera goizeko 9.30etan izango da. Joango diren guztiak Aramaixoko Kiroldegian, aldatzeko tokia eta du-



Txirrindua

• Mountain Bike Zeharbidea

Orixol Txirrindulari Elkarteak

txatzeko aukera izango dute.

• Zikloturisten irteera

Arrasateko Txirrindulari Elkarteak, igande honetan Arrasate-Itziar-Lastur-Arrasate ibilbidea egiteko asmoa daukate, guztia 90 kilometroko ibilbidea. Txirrindulari Elkartearekin batera joan nahi duenak, goizeko 9.15etan Portaloian egotea besterik ez dauka.

Jaiak

• Ojala Zelai

Igande honetan, Aretxabaletako Ojala Zelaiko jaiak ospatuko da. Goizeko 10.30etan burutuko den herri-krossak emango die jaiari hasiera. Eguerdira arte animaliekin jokoak izango dira.



Ondo bazkaldu eta gero, Loramendi dantza taldearen saioa ikusteko aukera izango da. Ondoren bi lehiaketa, bata sokatirakoa eta beste patata-tortilena. Hortik aurrera Saltsamaltsa taldearekin dantzaldia.

Mahaingurua

• Abortoa

Datorren asteartean, Monterronen burutuko den mahainguruan abortoarekin gaia eztabaidatuko da hiru ikuspuntu desberdinetatik. Eztabaida mahaia, Manolo Pagola frantziskotarrak, Arantza San Miguel ginekologoak, eta Mari Axun Ibabe andereñoak osatuko dute. Mahainguruari, arratsaldeko 7etan emango zaio hasiera.


“ (Txomin Iturberen deskripzioa): “Gorputz eta itxura izugarria, kirolari silueta, indulgentziarik gabeko aurpegira itsatsiriko bigotea eta kontzientzian ez baina besoetan hilotz ugari dituen gizon baten begirada gogor eta argia. Ez dakit zergatik niri, imaginan fantasma lantzeko ia aukerarik ez dudan honi, gerraren jaun gisako zerbait bezala agertu zitzaidan bukaeran”.

(Jean Marc Dufourg inspektore ohiak “Sección manipulación. Del Antiterrorismo al caso Doucé” liburuan)

“ Beti hitzegiten da doping-az, txirrindulari normala zaldi bihurtzen duen horretaz, eta horretaz azkar erantzuten du Sabino Padillak: ‘uste dut ez dagoela edari magikorik, zerotik gehiengora pasatzea eragin dezakeen sustantzia miragarririk ez dagoenetik. Halakorik balego, inor ez da tontoa eta denek ezagutuko lukete, baina horrek ez du esan nahi eraginik ez duenik, baina erabakiorra ez da. (...) Txirrindularia pertsona da beste ezer baino lehen, eta hartzen duenaz jabetu egin behar du. Ez dakit lehen nola izango zen, baina orain zintotasunaren dinamika jarraitzen da. (...) Txirrindularitza errendimendu objetiborik gabeko kirola da, ez dago baldintza standardik. (...) Ez dago beste kirolik, hain denbora gutxian hainbeste kilometro eta hainbeste intentsitatekin egiten direnik. Sekula ez da %100ean lan egiten, baina minutu asko dira eta 23 egunetan...’.

(Sabino Padilla, Banesto taldeko sendagileak “Egin” egunkarian)

Zeintzuk dira Musakolak dituen arazo eta behar larrienak?



Nire ustez, auzoa egoera onean dago. Hala ere, badira egin beharrak. Gasa sartzea ezinbestekoa da. Era berean, orain gutxi hasi den uraren arazoari ere konponbidea eman behar zaio. Jakina denez, Musakolan, herri osoan bezala, aldapak asko dira. Euri dexente egiten duenean Santa Teresatik ur asko erortzen da, eta atariak maila txikiak dauzkaten, ura sartu egiten. Arazo honi eman diogun irtenbidea, oraindik egiten ari garena, urak erre kara eramatea izan da, bideratu eta gasolindegi ostetik zuzenean erre kara eraman. Bi arazo horiek konponduz gero, auzoa ez dago txarto.

Aipatutakoak baino arazo gehiago badago, baina ez hain larriak. Esate baterako San Lorentzo plaza konpondu beharra dago, baita kamioien aparkalekua ere. Horretaz gain, uste dut jubilatuentzat beste toki bat aurkitu beharra dagoela, orain daukatena txiki gelditu zaielako.

Lokal aldetik ondo gaudela uste dut. Alkatetza oso leku aipatutakoak baino arazo gehiago badago, baina ez hain larriak. Esate baterako San Lorentzo plaza konpondu beharra dago, baita kamioien aparkalekua ere. Horretaz gain, uste dut jubilatuentzat beste toki bat aurkitu beharra dagoela, orain daukatena txiki gelditu zaielako.

Juan Mari Sanpedro, Musakolako alkatea.

FAGOR 
TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA
GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

 **PEÑACOB**
Auto-Eskola
Zarugalde 46,
79 14 01
ARRASATE

 **MIREN**
APAINDEGIA
Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 **ARRASATE**

◆ 1987ko udal hauteskunde-
etan Arrasateko bi irten ziren
hautatuak Batzar Nagusietara-
rako: EEko **Mikel Larunbe** eta
PSOeko **Joaquin Benitez**. Iru-
ñera joateaz batera, Larunbek
utzi egin zuen kargua eta harez
geroztik, Benitez izan da he-
mengo juntero bakarra. Dato-
rren legegintzaldian, berriz,
Mondragoek lau juntero izan li-
tzake orain lau urteko emaitzak
errepikatuz gero behinpehin:
Xabier Zubizarreta (2. HBko
zerrendan), **Jose Luis Mendia-
ratx** (2. PSOEn), **Pedro Mari
Ruiz de Azua** (3. EAn) eta **Julio
Gallastegi** (EEko zerrenda-
burua).

◆ Batzarkide irteteko posibi-
litate urriagorekin beste mon-
dragoetar hauek daude: **Jose
Mari Usatorre** 5.a da HBren
zerrendan, **Arantza Oruna** eta
Ignacio Jimeno 14. eta lehen
ordezkoa dira EEren zerrendan
eta Ezker Batuaren zerrendan,
azkenik, **Joseba Ugalde** biga-
rrena da eta **Juan Manuel Zu-
gasti** bederatzigarren. Denak
Deba-Urola barrutian aurkez-
ten dira. EAJK ez du juntero
arrasatearririk aurkezten.

hona hemen...

P. M. Ruiz de Azua (EA)



LEIRE ZUBIKARAI 91

Pedro Mari Ruiz de Azua


32 urte, ezkondua eta bi urteko
alabaren aita. Alderdiaren
barruan definitutako proiektua
jarraitzearen eta konpromezu
moral batek eraginda sartu zen
politikan. Injineru industrial
izanik, enpresen administrazio
Masterra du egina. Gaztetan
itsas injinerua izan nahi zuen
eta zaletasun frustratuen artean
itsasontziz munduari bira
ematea aipatzen du. Mendiza-
lea da baina kirol gutxi egiten
du. Faltsutasuna gorroto du
personengan, eta itxura bateko
persona, leiala izatea miresten
du batez ere.

Gizartean zerbait aldatzeko-
tan, aberats eta pobreen arteko
aldea orekatuko luke, Hiruga-
rren Munduarekikoa batez ere.
Errealista izatea gustatzen zaio,
eta familiazale eta umore oneko
personatzat dauka bere burua.
"El clan del Oso Cavernario"
bezalako liburuak atsegin ditu
eta ikusitako pelikulak ahaztu
egiten bazaizkio ere, gerrako
pelikularen bat ikusiko luke
berriz. Arrasateko herriari, orain
arte bezalakoa izateko eskatuko
lioke.

Arrasate bi hitzetan? "Polita
eta maitagarria"

**BAINUJANTZITAN
ESPEZIALISTAK**

NEREA



**BANATZAILE
BAKARRA:**

gottex

RASUREL

Majestic

Belcor

TROPIC

Erdiko kale 28, Tfnoa: 79 13 43 ARRASATE

◆ Gura barik, dituenak baino bi urte gehiago leporatu genizkion joan den astean **Jose Mari Loiti** alkategai jeltzaleari. Guk besterik esan arren, 52 urte baino ez dauzka Oñakar-eko gerenteak, hala ere zerrendaburuen artean beteranoena. Bakoitzari berea eta barka okerra.


◆ Partidu politikoak hasi dira postontzietan publizitatea bantzen, argazki eta guzti. Ikusten denez, gehienek **Monte-rrongo** parkea aukeratu dute argazkiak ateratzeko. **Santa Barbara** ez omen dago bere ordurik onenetan.

◆ Maiatzaren 26an kanpoan egongo zaretenek botua postaz emateko parada izango duzue. Bi aukera duzue: zuen gustoko partiduetara jo eta euren bidez egin edo postetxera joan eta han egin. Tramiteak hilaren 17ra arte onartuko dira. Aguro ibili, beraz.

◆ Betiko karlisten botuak berriskuratu nahi ditu PPK Mondragoen. **Javier Argomanizen** ustez, botu horiek EA eta EAJra joan zitzaizkien azken hauteskundeetan.

hona hemen...

Joseba Ugalde (EB)



LEIRE ZUBIKARAI 91

• Jaiotzez atxabaltarra, 39 urte, ezkondua. Ofizialia ikasi ondoren, Coprecin egiten du lan. Gaztetan, kantautore izatea zen bere ametsa, eta futbolari izatea zaletasun frustratua. Oraingo zaletasunen artean, zinea, irakurtzea eta gauean irtetea aipaten ditu. Basora joatea eta paseatzea ditu atsegin. Egunean pakete bi erretzen ditu. Urte batzuetarako kanpora joatea gustatuko litzaioke, Kuba aldera edo, eta gazteagotan egin eza damu du.

Gezurra esatea eta elkartasunik eza ezin ditu ikusi, eta konpromezu batekin bizi izatea miresten du gehien. Esan aurretik asko pentsatzen ditu gauzak, baina gizartea asko aldatuko lukeela esateko, ez du gehiegi pentsatu beharrik: lanpostu banaketa, emakumearen arazoak, diruaren inbertsioa.... Idealista erralista baino gehiago, umore ona du eta ez ditu haserreak gordetzen. Vazquez Montalbán-en *El Griego* ari da irakurtzen, eta *Lo que el viento se llevó* filmea ikusiko luke ostera. "Bera izatea" eskatzen dio Arrasateko herriari. Definizioa: "Nahiko herri jatorra, eta kanpotik datorrena eroso sentitzezko modukoa".



LASA-AGUILERA
aholkularitza

Andra Mari auzunea 3, Tfnoa: 79 29 26 ARETXABALETA

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-asegurua
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.a
- Errenta aitortpenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak


BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana 12, ARETXABALETA

Osorik
pub

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Hilerriaren maketa ikusgai dago Udaletxean.

Usteak uste

Arrasate ez da oso sarritan agertzen Euskal Herriko komunikabideetan. Aste honetan bai, luiziak zirela eta, saihebideta itxi behar izan zelako. Arrasateko saihebideta gora eta behera, ETB eta gainerako telebista eta irratietan. Arraro samar egiten zen.

Igandean, eta astelehenean batipat, ditxosozko saihebidetaren garrantziaz berriro ere konturatzeko egokiera izan genuen. Lehen bezala, trafiko guztia herritik zehar desbideratu beharra egon zen eta ertzainak eta, trafikoa bideratzen egon ziren arren, herri barruko trafikoa desastre hutsa izan zen, ordu gorenetan batez ere. Astelehen goizean San Prudentziorainoko auto pilaketak eta eguerdian herria alderik alde zeharkatzeko abentura luze eta neketsua.

Bi egunetako ameskaiztoa joan da eta trafikoa bere betikora itzuli da, bere onera ez esatearren, ez baita inoiz ona izan. Komeni da, hala ere, ez ahaztea Bergara eta Oñatirekin komunikatzeko ditugun arazoak beste behin begi bistan gelditu direla. Autoiladak San Prudentzio aldera egin dira eta ez Aretxabaleta parterantz. Hortxe dugu edozein larrialditan Deba Garaia ito lezakeen gunea.

Eta herri barruan nola ahaztu Maalako zubia, Gelmako bidegurutzea, S. Antolingo sarrerak eta Altamirarako bide moztua? Gune horiek konpontzen ez diren bitartean, Arrasateko trafikoa arazoz josia egongo da.

JOXE ARANZABAL

Kanposantuaren araudia onartu

Aurten hilobiak erosteko erraztasunak izango dira

Aste honetako Gobernu Batzordeak behin behineko onarpena eman dio San Kristobalen egingo den hilerria gestio-natzeko araudiari, eta orain plenoaren behin betirako onarpenaren zain geratzen da.

Oraingo udalbatzak hilerri berriaren aurrekontuari aurre egiteko bide bezala hilobien salmenta aukeratu du. Salmentok ahalik eta azkarren egitearren, aurten hilobia erosten duten arrasatearrei ordaintzeko erraztasunak emango zaizkie eta lau ehorketa egiteko lekua izango duten hilobiak 600.000 ptan salduko dira aurten, datorren urterako igogera handia -300.000 pta. ingurukoa-, izango duten arren.

Kanposantu berria egiteko 115.000 pta. izendatu ditu, lan horren lehenengo zatiari ekiteko hain zuzen ere, eta horri aurreko urteetan ur eta saneamendu sarea, bidea eta beste hainbat konponketatan inbertitutako 75 milioak

erantsi behar zaizkio.

Eraikuntza berriaren gastu garaia dela medio, apirilean Udalbatzak onartutako proiektuak 692 milioi guttira, oraingoz lehen faseari bakarrik helduko litzaioke, eta lanen ejekuzioan ere zeresan handia izango du herritarrek hilobirik erosten duten hala ez, eta hasieran behintzat Aldaiko hilerriaren saturazioa betetzeko adina bakarrik eraikiko da.

Xabier Unzurrunzaga arkitektuak eginiko proiektuan oinarriturik lehen fasean eraikiko diren lehen bi klaustroek 412 hilobiratze egiteko lekua izango da, autopsia-gela, administrazioa eta gorpuak erretzeko labea, eta horrez gain inguruaren urbanizazioa eta aparkalekuak ere oraintxe hasiko dira egiten. Bigarren, hirugarren eta laugarren faseetan beste kalistro bi eta kapila, gune erdiborobila eta San Kristobali dagokion zatiaren urbanizazioa egingo dira hurrenez-hurren.

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



LEKIN

Ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxebehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Iazko Udaleku amaieran festa handia egin zen

Udalekuen izenematea irekita

AEDn edo ikastetxeetan, maiatzaren 24a baino lehen

Irekirik dago AED Elkarteak uztai-lean antolatzen dituen udaleku irekietan izena emateko epea, maiatzaren 2tik 24era bitartean. Udalekua lehen mailatik 8. mailara arteko neska-mutiko arrasatear denentzat antolatu da, bi txandatan egiteko: uztailaren 1etik 12ra lehena eta 15etik 26ra bigarrena, asteburuetan izan ezik. Umeak goizeko 10etatik 1ra izango dira udalekuetan, eta 3etatik 7etara arratsaldean, 12 laguneko taldeetan banaturik.

Udalekuotan begirale gisa ibiltzeko unibertsitate mailako 40 gazte euskal-

dun jartzen ditu AEDk eta zuzendari tituludun batek eta lau koordinatzaile diplomatuk osatzen dute taldea. Udaleku irekiaren helburua bestelako udalekue-tako esperientzia ezagutu ez edo joan ezin duten umeei aukera ematea da, konfidantzazko giroan euskaraz jardun eta lagunarteko giroan natura, abenturak eta beste giro bat ezagutzea. Izena ematea haurren ikastetxean edo AEDn bertan, Pablo Uranga kalean egin daiteke, eta 2.000 pta. ordaindu izanaren agiria aurkeztu behar da apuntatze-rakoan.

□ Kooperatibako aportazioa

Kooperatiban sartzeko egin beharreko gutxieneko diru aportazioa honako hau izango da aurrerantzean sartzen diren bazkide berrientzat: 1.007.300 pta, norberaren izenean geratzen direnak, eta sarrerako emaitza bezala 241.700 pta.

□ Goardiako medikua

Aurrerantzean, goardiako medikua- ren zerbitzua jaso nahi duenak-gauez, asteburu eta jaiegunetan-, San Prudentzioko Gurutze Gorriaren zentrura deitu beharko du, 75 55 76 telefonora, handik medikua topatuko bait dute.

□ Farmaziak

Guardiako farmazien auzia dela eta Bergara eta Arrasateko Udalek botikarien ordezkariekin egindako bilerak ez du emaitzarik eman, oraindik ez dute eta farmazilariek euren erantzunik eman.


JAIOTZAK

Garcia Errasti, *Garazi*. Apirilaren 27an.
Alonso Rey, *Jessica*. 27an.
Martin Bascuñan, *Yasmin*. 28an.
Izquierdo Murillo, *Mirian*. 29an.
Herrero Azpiaz, *Ane*. 30ean.
Etxeberria Olabarria, *Olatz*. 30ean.
Matillas Zubia, *Unai*. Maiatzaren 1ean.
Romero Vinagre, *Sara*. 1ean.
Moral Gomez, *Iker*. 1ean.
Blanco Delgado, *Salvador*. 2an.
Fernandez Abarisketa, *Aitor*. 3an.
Montero Gonzalez, *Sara*. 4ean.
Lasa Ezkurra, *Anouhka*. 4ean.
Osoro Sanchez, *Itsaso*. 5ean.
Garcia Sanchez, *Maria*, 5ean.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

ARETXABALETA Tfnoa: 79 91 84



Kontzezlifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

URONDO
eletrizitatea




- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



SAMEGO
GARBIKETAK

Urriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Hautagaiak eta euskara

Erantzun desberdina AEDk egindako eskaerari

Martxoan AEDk maiatzeko hautagaiak euskara ere jakitea eskatu zuen. Zerrenda guztiak plazaratu direnez, aztertu egin dugu partiduek zenbateraino betetzen duten eskari hori. Euskaraz nortzuk dakiten erabakitzeke, udaleko lana euskaraz burutzeko gai izatea hartu dugu kontuan eta hona hemen emaitzak.

HB: 87ko emaitzak errepikatuz gero, hau da, 5 zinegotzi atera, horien arteko %80ak dakiela esan behar; zerrenda osoa hartuz gero, berriz, %71k betetzen du AEDren eskaria.

PSOE: Lehen 5 zinegotzien artean

inork ez daki euskaraz eta zerrenda osoa hartuz gero, %4ak baino ez. Argi dago PSOEn botu eta hautagairik gehienak gutxien integratu diren etorkinen esparrurik datozela.

EA: Lehen kasuan %100era heltzen da, **EE** bezala. Zerrenda osoa hartuta, berrez, **EAKo** %85ak daki euskaraz eta **EAKo** %61ak.

Oraingo Udalbatzan ordezkariarik ez duten partiduen artean, zerrenda osoa hartu da kontuan. **EMK-LKI**ko %33ak daki euskaraz, **Ezker Batuan** %19ak eta **PPn** inork ez.

Arrasate Musikal

Arrasate Musikalen izena emateko epea maiatzaren 6tik ekainaren 14era bitartean izango da. Solfeoan hasi ahal izateko 8 urte eduki behar dira, eta Balletean hasteko, berriz, 7 edukitzea izango da ezinbesteko baldintza. Solfeoko bigarren maila gaudituta duten ikasleek ere eman dezakete izena instrumentuetan. Solfeoan nahiz instrumentuetan plazak mugatuak izanik, izenemate ordena errespetatuko da. Apuntatzeko jo ezazue bulegoetara arratsaldeko 5etatik 8etara.

Uherkape

Uherkapeko lanak geratuta daude Azatza kooperatibako etxe jabeek Bergarako Epaitegian hartarako interdiktoa ezarri dutela eta. Asteazkenean izan zen ahozko bista eta epaia jaso artean lanak gelditu izango dira. Azken euriteak direla eta, lurrak berriz ere ikara egin duela esan dute Azatzakoek, eta kontsolidazio lanak egitea gerarazi. Beharbada Udalak auzotarrekin bilerak egin ditzake.

San Antolin saritua

San Antolingo ikastolako talde batzuk Trafiko Zuzendaritzak antolatutako idazlan eta marrazki lehiaketan sarituta izan dira. 5. mailakoek lehen eta 3. saria eta 7.ekoek bigarren saria, eta marrazkietan berriz, hasiera eta erdi zirkloan sari bana. Neska-mutiko zein irakasleek sari bikainak eskuratuko dituzte.




BEROLAN

S. LORENTZO 58, 4. ESK.
ONATI TFNOA 78 29 63

PROIEKTUAK, INSTALAZIOAK:

- KLIMATIZAZIOAN
- ELEKTRIZITATEAN
- SUTEEN-AURKA
- UDAL LIZENTZIAK

IBARRA Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19


LORATEGI

taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Irlatera. Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.




• ANSCO argazki makina bat.


IRABAZLEAK

Argazki makina:
RUTH OSINAGA
 Telefonoa:
PILI GARMENDIA
 Erlojua:
AITOR
ETXEBARRIA
 Afaria:
ESTEBAN
MONDRAGON


Zotz




• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
 ARRASATE



SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
 ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25
 ARRASATE

Motz

LEHIAKETA

GALDERA

Nola
deitzen
da Al
Andalus-eko
dantza
taldea?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.




• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA
2 lagunentzako bidaia
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.
(F.F)



KAT IDE
ARRASATE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE



Baskotour
BIDAIK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE



MECA
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 12
ARRASATE



Amaia antzokia leporaino bete zen joan den larunbateko **Es-kolen arteko IV. Topaketak** zirela eta. Hamabi izan ziren bailaratik etorri ziren taldeak eta erakutsi zuten maila polita izan zen. Denek txalo beroak jaso zituzten, baita zuzendariek ere.



Edurne Iturberi ongiatorria. Sei urte

Estatuko gartzeletan pasa eta gero, Edurne Iturbe Arrasatera itzuli zen astearte iluntzean, zortzi t'erdia aldera. Lehen ongiatorria Gatzagan egin zioten, gero karabanen Arrasateraino etortzeko. Arrasaten berrehunen bat lagun itxaroten zeuzkan: ohorezko aureskua dantzatu zen, poematxo bat irakurri, eta Edurnek lora sorta bat jaso zuen.



Arrasateko **saihesbi-dea** itxita eduki dugu aste honetan, asteartera arte, igandean harriztar bat erdira erori eta gero, azken egunetan egin dituen eurijasa ikaragarrien ondorioz. Herri barrutik trafiko guztia desbideratu beharraz arazo latzak sortu ditu. Saihesbideak beste behin ere zeresana emán du herrian. Azkena ote?

Deba Garaiko III. Txiste Txapelketa

AEK-k antolatutik

Ekainaren 1ean, gaueko 11etan Amaia antzokian

Parte hartzeko dei 79 71 12 / 77 03 69 tfnoak. (AEK)

Izenak emateko epea maiatzaren 27an bukatuko da.

Baldintzak: Txistek euskaraz izatea eta Deba Garaian bizi, lan egin edo ikastea.

Sariak:

1.30.000 pta.
2.20.000 pta.
3.10.000 pta.

Parte hartzen dutenek afaria izango dute.

Muxibartik Udalara doan bide zaharrean, oinezkoen mesederako, **eskilerak** egiten ari dira. Orain eskilerak egiten ari diren toki berean, garai batean Udalarako bide zaharra zegoen, Udalako baserritarrek kalera jaitsi edo kaletik igotzeko erabiltzen zutena. Orduan erabiltzen ziren asto eta mandoek ez ziren ez oso eroso ibiliko eskilara hauetan. ▶



Izen
PROPIOAK

● **Aitor Saez de Viteri**, 24, gazteiztarra, Centraljet-Euskal Air saskibaloitaldeko jokalaria onen izendatu dute. Aitorrek Gasteizko saskibaloitaldean jokatu zuen Arrasatera etorri aurretik, eta Txus Brizuela entrenatzaileak ekarri zuen Arrasatera. Bere altuera 1.86 da eta 85 kilo pisatzen ditu.

● **Balentin Moreno**, 33, arrasatearrak 4. saria eskuratu zuen Gernikan urtero egiten den Makailoaren Erregea sariketan. Balentin Leintz Elkarte-ko sukaldaria da eta arrain eta makailoan du bere espezialitatea. Sariketa hori egiten diren guztien artean mailarik handienekoa da eta Balentinek saria eskuratzen duen lehen aldia da.

● **Joxe Errasti**, 71, arrasatearrak Gurutze Gorriak emaniko sari berezia jaso du, jubilatuen gimnasiaren munduan egindako lanarengatik eskerrak emanez. Joxe lehena izan zen hirugarren adinekoentzat ikastaroan antolatzen. Jubilatu aurretik Zerrajeran eta Fagor Elektroniketan ibili zen.



◀ **Zotz-Motz lehiaketakoek** Ecuador bidai agentzian jaso zituzten aste honetako sariak. **Juana Berrio-Otxoa**, **Saioa Alberdi** eta **Aitor Iturriaga** jarri zitzaizkigun argazkia ateratzeko. Zorionak, eta segi papertxoak bidaltzen!

BERRIRO ERE...

Kanping, hondartza, terraza eta kirol gaien aukera handiena aurkituko duzue salmenta onean



Cercas bajas 34, GASTEIZ

I
R
A
T
I

**Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80**

IMI: Informatikarako ate

Ordenadoreez zerbait ikasi nahi duen orori aukera aparta eskainiz, egunero dago zabalik, pantaila eta disketeen mundura hurbil zaitezten.


Karnetaren fotokopia eraman, bertako txarteltxoa jaso eta aski da nahi den guztian IMIko ordenagailuak erabili ahal izateko, dena dohainik. Hamalau PC eta bi Macintosh, bi mikroprozesagailu eta sei bideo-magnetoskopia daude eskura, eta horrezaz gain, bertako materiala erabiltzeko aukera (liburuak, manualak, bideozintak). Gainera, urtean zehar arlo eta espezialitate ezberdinetako ikastaroak antolatzen dira, iazko urtean, adibidez, 14 ikastaro antolatu ziren, 210 ikasleren partaidetzarekin. Dena dela, jenderik gehiena bakarrik eta bere kontura etortzen da, ikasi, dakienari eutsi edo lan jakinen bat egitera.

Batez ere gazteak

Arrasate pasealekuko bulegora sartu, eta orduaren arabera, gazteak ikusten dira batez ere. Goizetan jende gutxi etortzen dela esaten dute monitoreek, heldua goak, eta arratsaldetan, batzuetan, txanda hartu ezinik. Arratsaldez datozenen artean eskolako lanak egitera etortzen diren neska-mutil gazteak dira nagusi. Unai etxe-

ko lanak egiteko erabiltzen ditu IMIko ordenadoreak, "teknologiarako batez ere", eta eskolan eman duen apurráz gain, libururen bat ere irakurri du. Hala ere, erraza egiten zaio mundu horretan defendatzea, eta halako gau-

zetan lan egitea gustatuko litzaioke. Mikele ere gustora etortzen da, ia arratsaldero eta ikastarorik egin ez badu ere, asko ikasi duela aitortzen du, eskolarako ikaragarri laguntzen diola, apunteak pasa eta materiala prestatze-



Monitorak eta IMIko materiala, zuri laguntzeko daude.


ko batez ere. Jonek eskolan ematen diren programak arkaikoak direla uste du, eta horregatik etortzen da, "orain arte idatziz egin dena ordenadorez ikasi beharko litzateke". Oskar, Gustavo... beste asko dira, 16 urterekin hasita ia egunero etortzen direnak, etxean ere ordenagailua eduki arren. Jolaserako ere ordenagailua erabiltzea ona eta dibertigarria dela erizten diote, eta bizi-tzea lortzen duen zaletasuna dela esatera ere ausartzen dira.

Lanerako bideak urratzean

Gazte horietako askoren ametsean tresnokin lan egitea dago, eta izan ere aurrerantzean errealitate ezinbestekoa gehiago izango da hori, desio hutsa baino. Robertori behintzat hala gertatu zitzaion, orain sei urte inguru IMIra joaten hasi zenetik. Institutuko azken urtea egiten zebilen eta zerbait ikastearren hurbildu zen, baina hainbeste gustatu zitzaion ze, lanbidetzat informatika aukeratu bait zuen. Bere lehen programa hemen egin zuen, "1 eta 2 gehitzen zituen programa bat, sinestezina!" gogoratzen du barrez. Orain horretan egiten du lan, eta Jesusek, bere lagunak, ikasi egin nahi duenez, berari erakustera etorri da, eskolan landu behar duen sistema batekin laguntzera, eta horrekin batera bere lan txikiak egiten ditu. Informatika bizio bihur ote daitekeen galdetzean "bizio? arotzeria bizioa al da?" galdetzen du harrirituta. Beretzat lanbide hutsa da, eta jende askori hori entzuten bazaio ere, ezagutzen ez dutelako dela dio, "ez dut ordenadorerik drogatzen erabiltzen". Umeek ordenadorez jolas egiteari ondo de-

ritzo, baina "neurrien barruan, telebistarekin bezala". Hasieran Arrasateko IMIn boom ikaragarria izan zela dio, "komunera joateko ere txanda hartu behar; orain, oster, gogo handiagor dagoen jendea etortzen da, hau amama ez dela konturatuta". Bere laguna mailari buruz kezu azaldu zaigu: "bideoak ezer ikasten hasitakoan bukatu egiten da dena".

Izenik eman nahi izan ez digun mutil batek urteak daramatza hona etortzen, eta ikasketa berezirik ez badu ere, bertan ikasitakoak enpresa txiki bat jartzeko balio izan zion. Zaletasunaren eta orduen puruz aurrera egin zuen. Datu-baseak atsegin ditu, eta baita CADa ere. Bere burua autodidaktatzat dauka, eta inork erakusteko nekeza den zientziazat du informatika, "liburuen bidez asimilatzen joatea askoz hobe da, eta hortik aurrerakoa orduak sartzea da". Lanerako ere hauxe gustatuko litzaiok, baina asko jakin arren gaur egun "tituluen arazoa dago, paper batek gehiegi balio du, eta kalean bada hori baino jende kompetenteagorik". Zaletasun biziagarria dela iruditzen zaio, hasitako lana bukatzearren segi eta segi egiten dena, eta ordenagailuak jolaserako erabiltzea oso ondo ikusten du, "ihesbidea delako, gaztetxoentzat batez ere, gustoko ez duten gauza gehiegi egin behar izaten dituzte eta".



Batzuetan txanda hartu behar izaten da ordenadorearen aurrean jartzeko.

Helduagoen hurbilpena

Bigarren eguna du Jesusek bulego haietan bere asmoez galdezka hurbildu gatzakionean. Nagusia da eta lanerako behar duenez hasi da informatikako oinarriak lantzen, eta lehen ere hasierako ikastaro bat egina duen arren, bi hilabete inguruan ordu pare bat eskainiko dizkio lan horri, "teknikoa naiz eta ordenadoreen funtzionamendua ezagutu nahi dut, gero lanean eta etxean ere erabili ahal izateko". Beharrezko izan arren, bizio izatera ere ailegatzeko moduko zaletasuna dela erizten dio, hasi berritan, eta umeez jolaserako gehiegi erabiltzea komenigarriegia ere ez.

"Laguntzeko gaude"

Jende asko ideia jakin eta garbiarekin etortzen bada ere, beste asko etortzen omen da zerbait egin nahi eta zer egin jakin ez. Norberaren lanerako edo gustotarako behar dena aukeratzea izaten da lehen eginkizuna, horretarako aholkua emango dizute monitorrek. Hortik aurrerakoa, hala ere, bideo, liburu, aldizkari eta gainerako materialen bidez ikasten da, "autoestudio bidez", hartarako dauden lau mutil horiei galdetuz, jakina.

"Batez ere gazteak etortzen dira, 2. REMekoak dira nagusi, eta horrezaz gain, hiruzpalau gizon nagusi eta inoliz etxekoandreraren batzuk ere hurbiltzen dira. Gaztetxo horietako batzuk orduak eta orduak ematen dituzte hemen, erdi biziaturik". Monitoreei egiten dizkieten kontsultak oso simpleak izan ohi dira, hasi berrienek egiten dituztenak. Eta tratua? "askotan tratu onegia ematen diegu, konfiantza larregi hartzen dute", diote barrez, baina zer moduzko zerbitzua dagoen erabiltzaileek esan behar omen dute.

Lore lurrindegia

Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

ARRASATE

UMEEN JANTZIAK

Otalora 29, Tfnoak: 77 05 61.
ARRASATE

Mahaingurua

Abortoa

Hiru ikuspegi ezberdin


Hizlariak:

- Manolo Pagola. (Frantziskotarra).
- Arantza San Miguel. (Ginekologoa).
- Mari Axun Ibabe. (Andereñoa).

Eguna: maiatzak 14, asteartea

Ordua: arratsaldeko 7etan


Tokia: Monterronen



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE



CRISTINA RODRIGUEZ



IGOR

Ideia eta gidoia:
VON J.

Aktoreak:

TomeyIGOR
 AuroraCRISTINA RODRIGUEZ
 AitaLAZARO RODRIGUEZ
 NeskaREBECA CABALLERO
 ZuzendariaMANOLO BOISA
 KamaraKOLDO MATEOS
 FokoaVICTORIA DEL VAL


Gure eskerrik beroenak *Kajoi* eta *Josu* tabernakoei eskaini diguten laguntzagatik.

© Arrasateko Institutuko Ikasleak

Zuzendaritza eta argazkigintza:
J. OZAETA
eta
GURUTZE EGILUZ

ONDO ATERAKO DA

(1. ATALA)



Tomey! Zenbat denbora elkar ikusi gabe!

Ene... aspaldiko Aurora!



Promes egin genuen
edozer pasata ere,
ez ginela elkarren-
gandik urrunduko.

Promes, promes...




Eta gero sekula kunplitu ez!



Oroitzen, Aurora? Oker ez banabil, hantxe
ezagutu genuen elkar duela urtebete, zü alda-
pan gora eta ni Joxemirekin maldan behera.




Bai, oroitzen dut, Tomey. Eta arbola
honen itzalpean eman genion muxu
elkarri lehen aldiz.



Dena den Tom, ez naiz etorri kontu zaharrak gogoratzer
zurekin. Hitz egin nahi dut; baina tira, goazen tabernara.
Berba egiteko leku aproposagoa da hau baino.

Esateko daukazuna entzuteko irrikaz nago, Aurora. Ezagutzen zaitut eta urtebete eta gero nire bila etortzeko, zerbait serioa darabiltzu eskuartean.



Kaina eta kafesnea, Paul.



Ongi da Aurora, zain naukazu...



Oraintxe bertan, Tomey. Nahi baduzue eseri mahaian. Kontsumizioa bertara eramango dizuet.



Zure laguntza behar dut, Tomey. Zure laguntza... nire aita hiltzeko!




JARRAITUKO DU.

**I
R
A
T
I**

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

**KAJOI
TABERNA**

Erdiko kale 22,
ARRASATE



GARAGARDOTEGIA

Otalora 23, Tfnoa: 77 09 23
ARRASATE

EDERRA
taberna

Iturriotz 12, Tfnoa: 79 96 25
ARRASATE

Osinagak 50 urte dauzka, maisu industrialia da eta Fagorren egiten du lan. Lanean ez dagoen gehienetan, pilotan egiten duten mutikoei begira egoten da, bost urtetik hona Arrasateko Pilotari Taldeko Lehendakaria bait da.

— Noiztik pilota munduan?

— Bada, seme gazteenak pilotan jokatu nahi zuela esan zidanetik. Orduetik beti ahalegindu naiz berari laguntzen, partidu eta entrenamenduetara eramanez izan dut. Pilota taldeko Zuzendaritzan sartu nintzen, eta duela hiru urte taldeko lehendakari izendatu ninduten. Pilota taldean oso gustora nagoen moduan, bertan dabilen mutikoak eta euren gurasoak gustora egotea nahi nuke, denok elkarrekin.

— Beranduko zaletasuna beraz...


— Bai, baina normala dela uste dut. Mutikoa nintzenezan Arrasate hiru zatitan banatzen zen: Uribarri, Erdigunea eta Musakola. Musakolan apur bat aparte bizi ginen, gainera han ez zegoen pilotan egiteko tokirik. Hamazazpi-hamazortzi urte nituela, igandeetan meza entzun ondoren eta txikiteoa egin aurretik, Gureara joaten ginen Zurdito, Oregi, Bengoa... eta horrelakoak jokatzen ikustera eta bide batez kinielak egiten. Duela bost urte arte, pilotarekin lotura handiagorik eduki barik nagoen.

— Zaletu berri samarra izanda ere, nola ikusten duzu pilotaren maila Arrasaten?

— Hemen dagoen arazo larriena, behar bezalako frontoirik ez egotea da. Askok esaten dute frontoi ugari

Juan Osinaga

Pilota garai berrietara egokitu nahian



dagoela, baina itxurazkorik bat ere ez dago. Normalean, Musakolan jokatzen dugu, eta ikusleentzat, zutirik egon behar direnez, ez du inolako erosotasunik. Pilotarientzat ere, hobe izango litzateke dutxak frontoian bertan egotea, ez kiroldegian.

Pilotariei dagokienez, esan behar da gazteen artean, Arrasaten gaur egun on-onak bi pilotari daudela, baina aurrera aterako diren edo ez, ezin daiteke esan. Ikastetxeekin batera lanean ari gara mutikoekin "kirolanitza" deritzon kanpainaren ba-

rruan, beste kirol batzuen artean pilotan jolasteko aukera dutelarik.

— Eta orduan zergatik ez da pilotaririk ateratzen?

— Beno, nik gehienbat orain artean erabili den materialari leporatzen dioterrua, material oso gogorra izan da eta. Mutikoak pilota jotzerakoan min hartzen badu, hurrengoan beldurrez sartuko da. Orain, material bigunagoa erabiltzen dugu eta mutikoak gustora dabilta.

Horretaz gain, gehienbat bakarrean jokatzekeo kirola izateak ere, mutikoari kirola

errazago lagatzea eragiten dio, mutikoak beti lagunekin ibili nahi duelako.

Dena dela, eskuak minduta izaten dituztenak, pilota utzi eta palan jokatze bultzatzen ahalegintzen gara.

— Zer nahiago duzu, jokoa egin eta ikuskizuna eskaini, ala behin eta berriz pilota atzera bota eta partidua irabazi?

— Dударik barik, garrantzitsuena ikuskizuna eskaintzea da, hori bai, jakinda tantoa egiteko aurretik etsaia menperatu behar dela. Mutikoei ere, gauza bera erakutsi nahi diegu, horregatik orain bideoa erostekotan gabilta, eurek egiten dutena eta beste batzuk egiten dutena ikusi eta hobe dezaten.

Dena dela, umeei irabaztea gustatzen zaie, eta horregatik askotan zerbait ematen diegu, trofeo txikiren bat, dominaren bat...

— Pilotari behar beste laguntzen zaio?

— Arrasateko kasuan, komunikabideek asko laguntzen dute, baita Euskal Telebistak ere. Pilota, komunikabideetan egotea garrantzitsua da, umeei behintzat ikusteko aukera izan dezaten.

— Zer etorkizun ikusten diozu pilotari Arrasaten?



— Nire ustez, Arrasateko Pilota Taldean lana zintzotasunez egiten ari gara. Frontoi berria egiten dutenean, lan asko eta ona egin dugula ikusiko da.

Pilotari saltsa apur bat eman nahi diegu, partiduetan betegarriak jarritz. Esaterako, saskibaloian kirola saskibaloia bera da, baina jendea partiduetara joan dadin atsedendaldian ikuskizunak jartzen dira. Pilotan, geure erara, adibidez kinielak egin edo pilotari buruzko filmeak bota, bide beretik jo behar dugu.

— **Esaten dute frontoi ugari daudela, baina itxurazkorik bat ere ez dago**

Arrasate Kirolak borrokan

Musakolan jokaturako partiduan, Herreroen mutilek ez zuten arazorik izan Salesianos taldearen aurkako partidua irabazteko. Arrasatearrak motibazio handiz atera ziren jokatzera, eta lehen hamar minutuetan kanpokoek gol bakarra ere ez zuten lortu. Azken emaitza 28 eta 17koa izan zen, etxekoen alde, ondorioz Salesianosek maila galdu du; Arrasatek aldiz, mailari eusteko, datorren astean Ormaiztegi irabazi beharko dio.



Deba Arroa txapelketan berdinketa

Arrasate eta Bergarako pilotarien arteko neurketak ikusteko aukera izan zen Musakolan asteartean, berdinduta bukatu zen neurketa. Alebinetan Lizarralde-Murgoitio arrasatearrek 18 eta 14 irabazi zieten Martín eta Zabaletari; Haurretan bergararrak nagusi, Zugasti-Uribarren 5 Zabaleta-Muruamendiaraz 18; Gaztetan Korta eta Zuazubiskar izan ziren garaile Larrañaga eta Oruesagastiren aurrean, 22 eta 20. Nagusietan Bergarako Oregi-Aldaik 22, Mujika-Kortak 16.

Mondra motel

Joan den igandean Mondra eta Tolosa taldeen partidua jokatu zen Atxabalpen, aurtengo denboraldian Arrasateko taldeak Atxabalpen jokatzeko azkena hain zuten. Beste askotan bezala, mondragoetarrek ez zuten garaipenik lortu eta banako berdinketarekin konformatu behar izan zuten. Denboraldia amaitzear dagoen honetan, hasieran aldarrikatzen ziren helburuak ez direla bete esan daiteke, aurre-denboraldiko asmoa mailaz igotzea zen eta.

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

BRANKA
jatetxea

Eguneko menua eta karta

URRI

URIZAR

Nesken futbola bultzatzen

Urri Urizar duela lau urte hasi zen futbolearen jokatzeko, nahiz eta baloi bati ematen zizkion ostikokadak ikastolan zebilela izan. "Kiroletarako zaletasun handia izan dut beti. Futbolearen hasi aurretik atletismoan ibiltzen nintzen, baina ez nuen gauza handirik egin, serioegi ere ez nuen hartu eta. Atletismoa utzi eta futbolearen hasi, parean tokatu zitzaidalako".

Urri zelai-erdian jokatzeko duen bere ustez dagokion tokian, jokoa ikusteko erraztasuna izateaz gain, tiro gogorra ere badauka eta. Zelai-erdian gustora egoten den moduan, Urri aurrekaldea ez zaio bat ere atsegin, egiten dituzten aukerak ez bait ditu gauzatzen. Zelai-erdian jokatzeko duenez, egiten duten guztia inork baino hobeto ikusten du. Bere ustez, Arrasateko taldeak ondo jokatzeko du. "Hasi ginenean ez genuen ondo jokatzeko, baina orain bai. Poliki-poliki ikasten joan gara. Lehen partiduetan, baloiari ostikada eman eta guztiak atzetik korrika abiatzen ginen, orain bakoitzak bere postuan jokatzeko du. Ate batetik bestera joateko hamar pase baino gehiago egiten ditugu, eta hori asko da".

Urri esandakoaz aparte, denbo-



raldian zehar lortutako emaitzek ondo adierazten dute Arrasateko taldeak jokatzeko erantzen duen aldaketa: denboraldi hasieran partidu asko galtzetik, azken partiduetan guztiak irabaztera pasatu da. "Beno, emaitzak eta jokatzeko moduak zerikusi handia daukate, elkarrekin joan daitezke askotan, emaitza onek animoak ematen dituzte eta. Asteroko lanak ere badu bere garrantzia. Guk astean bi aldiz entrenatzen dugu, lan serioa eginez.

Garrantzi handiena horretxek dauka, guk lana eginez talde bat finkatu dugu, eta ondoren datozenek badaukate, nahi izanez gero, sartzeko tokia. Lehen ez zegoen ezer, gu hutsetik hasi ginen, orain, ordea, badaukate non begiratu".

Aipatutakoak baino asmo gehiagorik ez dauka Urri Urizarrek, futbolearen jolastu, kirola egin, eta ondo pasatu.

◆ Txirrindulariak ondo


Joan den asteburuan egindako lasterketan, Arrasateko txirrindulariak ordura arte bezain fin ibili ziren. Alebin mailako txirrindulariek lasterketa polita egin zuten Oñatin, Oiher Garro hirugarren eta Urko Anduaga laugarren izan bait ziren. Lehen mailako kadeteen artean, onena Zigor Urain izan zen, 8. Deban eta 12. Tolosan. Besteek ez zuten aipatzekorik egin. Bigarren mailako kadeteek, Eibarren lasterketa ona egin zuten, Alberto Roldan eta Antonio Sanchez lehen postuetan sartuz. Berri pozgarriena gazteek ekarri zuten Lazkaoetik, Eneko Garaik garaipena eta Iñigo Roldanek bigarren postua lortu bait zuten. Gainontzeoak tropelarekin sartu ziren.

◆ Atzeratuen alde

Datorren igandean, hilak 19, Aretxabaletako futbol-zelaian Errealak eta Athletic taldeen arteko partidua jokatu da, garai batean talde bietako jokalaririk izan zirenen arteko partidua zehazki esateko. Zamora, Iribar, Satrustegi... eta beste jokalaririk handi asko ikusi nahi dituenak badaki datorren astean non izango duen zita.

◆ Centraljet irabazle

Denboraldi honetan, Centraljet Euskal Air taldeak azken aldiz jokatu zuen Musakolako kiroldegian. Xerox Getxo taldea izan zuen aurrean, eta emaitza 87-80 izan zen arrasatearren alde. Partidua ez zen bat ere polita izan. Arrasatearren lehen minutuetan ondo jokatu zuten, baina bizkaitarren erreakzioa eta arbitroen lan eskasa medio, markagai-luan berdinketak ere egon ziren. Azkenean, Saez de Biterik, Centraljeteko jokalaririk onenak, bederatzita puntu lortu zituen jarraian.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Grandola eta krabelin gorriak

“Grandola vila moreeena, terra da fraternidadeeee...”


Eta berrogeitaka urtetako diktadura birrindu egin zen. Usteldurik zegoen ordurako.

Portugaleko herria eta armada prest zeuden Salazar eta Gaetano pikutara bialtzeko. Seinalea falta zen.

Eta seinalea irratiaz iritsi zen. 74eko apirilaren 25ean

«En cada esquina un amigo, en cada rostro igualdad...»

Jose «Zeca» Alfonso ari zen kantari. Bera behar zuen izan, ezin beste inor. Portugaldar abeslarietan ospetsuena garaian, ez bakarrik fadoan oinarrituz musika bihurtu eta berriro herriari itzultzen zizkiolako bere kantuak ere, borrokarako tresna izan zitezten.



“O povo é qem mais ordena...”

Baina diktaduraren osteko

iraultza ere birrindua suertatu zen. Poliki-poliki ihartu ziren krabelin gorriak. Usteak uste-

lak gertatu ziren eta amets ederra mila zatitan lehertu. Denboraren joanean “Zeca” Alfonsok ez zuen gehiago kantoi bakoitzean lagunik aurkitu, ez eta aurpegi bakoitzean berdintasunik. Agintari izan behar zuen herria aldizka botua ematera mugatu zuten. Eta Portugal beste demokrazia bat gehiago bilakatu zen.


Alfonsok ezin izan zuen jasan. Bera ere krabelin gorrien antzera ihartu zen, bere bizia lore haienari atxikia balago bezala. Baztertua eta ahantzia hil zen kantaria, ez bait zuen inork utopia gogorazterik nahi.

Ez da geroztik apirilean krabelin gorririk loratu.

Mikel Irizar

EUSKAL FAMILIATAN

IKASI!!



Euskara ikasten ari zaretenontzako egonaldiak euskal familiatan.

Informazioa eskuratu nahi baduzu, jo Udaletxeko Euskara Zerbitzura. Tfnoa: 79 09 00


Batuta

Felix Aranzabal

Felix Aranzabalek, beharbada "Angiozarko itsua" gaitzizenaz eza-gunagoa denak, musikatik atera du bizimodua. Duela hirurogeitamabi urte, Angiozarren jaio zen eta txikitatik musikarako gustoa erakutsi. "Zazpi urte nituela soinu txikia ikasten hasi nintzen, etxeok bultzatuta. Orduan belarriz jotzen nuen, solfeo barik".

Hamaika urte zituela, Felix Aranzabal, istripu baten ondorioz itsu gelditu zen, bere bizimoduari erabateko aldaketa etorri zitzaion. Felixek Angiozartik atera eta Bilbora joan behar izan zuen, Deustuko itsu-eskolara. "Deustuko eskolan bost urte pasatu nituen, braille sistema, pianoa eta solfeoa ikasi nituelarik. Urte horiek erabakikorak izan ziren niretzat, eguneroko bizimodurako prestatzeaz gain, piano ikasketek gero akordeoia erraz ikasteko balio izan zidaten eta".

Deustutik etxera bueltatu eta gero, akordeoia bere kabuz ikasi zuen Felix Aranzabalek. Auzoz-auzo erromeriaz-erromeria ibiltzen hasi zenean,



Felix Aranzabal "Angiozarko itsua" bihurtu zen. Mondragoe inguruan oso ezaguna egin zen, "Musakola, Garagartza, Bedoña, Udala, Aramaixo... eta beste auzo askotan ibiltzen nintzen, baita guztietan lagun handiak egin ere. Gerra etorri eta guzti horri bukaera eman behar izan genion, Bergarara joan nintzen bizitzera".

Gerra ostean "Angiozarko itsuak" auzoz-auzoko lanari berrekin zion, bizi-modua hortik aterez. Euskadi mailako lehiaketetan ere Felix Aranzabalen izenak ospe handia hartu zuen. Hondarribia, Errenteria, Durango, eta Portugaleteko lehiaketak irabazi zituen "Angiozarko itsuak" orain apenas heltzen dio akordeoiari. "Noiz behinka hautsa kentzeko bakarrik hartzen dut, beste ezertarako ez, normalean ez dut jotzen".

Auzo askotan ibiltzen nintzen, baita guztietan lagun asko egin

Txio txioak

■ Behin aldizkariko sail honetan bertan, Arrasateko Trikitilari eskolakoek Goikobalukoei eskaintako koplen berri eman zen bezala, orain trikitilariak Galesen abesteko idatzi zituztenak irakurtzeko aukera izango duzue:

Etorriaz bat, alaitasunez musika jotzen gera ekin euskal giroa erakusteko elkar batuaz zuekin

Trikiti eta panderojole gaude zirti eta zarta hola jarraituz lortuko degu benetan giro aparta

Euskal Herriak eta Galesek dute xarma ta lilura anai arteko batasuna da gure arteko lotura

Hizkuntza eta kultura dira herri bi hauen bihotza beraien alde borrokatzeaz ez dadila inor lotsa

Zuen aurrean agur bezala hau nahi genuke opatu: gaurko eguna festa giroan alaitasunez ospatu.

MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzariek
Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

FANCY
GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24 ARRASATE

Euskararen normalizazioa pertsona mailan

Egoera minorizatu-
an dauden hiz-
kuntzen hiztunen-
gan normalena da
hizkuntza minori-
zatu hori norberaren baitan ere
minorizatu egotea. Honek
esan nahi du zeregin gehi-
entarako norberaren ama-hiz-
kuntza ez den hizkuntzan,
erosoago, lasaiago sentitzen
dela pertsona, ez daukala burua
nekatu beharrik. Hego Euska-
lerrian normalena gaztelaniaz
funtzionatzea denez, euskaraz
funtzionatzen hasteak esfor-
tzua eskatzen dio hizkuntza
minorizatuaren hiztunari.
Inertiak apurtzea eta euska-
raz bizi nahi izatea errekan
gora igerian joatea modukoa
da, errekan gora eta jakinean
gainera.

Eginkizun honetan ezin-
bestekoa da gaur egun pertso-
nak hizkuntz kontzientzia izate-
a, euskaldun izateko boron-
date sendoa bizitzea norberak
bere baitan, azken finean nor-
berak prozesu horretan
inplikatu sentitzea bere burua,
norberak euskararen alde eta
euskaraz egitea besteek nor-
beraren partez egin dezaten
itxaron gabe.

Aukera ideologiko kons-
zientea egin beharra dago.
Norberak euskaldun izan nahi
duelako, euskaraz gaitasuna
lortzen du eta gaitasun hori
egoera konkretuetan normal-
tasunez erabiltzen ahalegin-
tzen da. Eta horretarako geure
burua askatu egin behar dugu
gaur egungo "normaltasune-
tik", egoera minorizatu bizi

dugunon artean oso normala
da eta, Aracilek esaten zuena:
"Ezinbestekoa dena ezi-
nezkotzat jotzen da".

Imajina dezagun Ikastole-
tako haurrek euskaraz hitz
egiten dutela harro-harro;
ama-hizkuntza modura eus-
kara jaso ez dutenek ere ikasi
egin dutela, Arrasaten euskara
erabili egiten delako; koope-
ratibetako eta gainerako
enpresetako hizkuntza euska-
ra dela, dendetan eta taberne-
tan ez dagoela zerbitzaririk
euskaraz ez dakienik; imajina
ezazue...

Posible ez dela erabakiz
gero, erramienta guztiak ka-
jan sartu eta ahantz gaitezen
"affaire" honekin. Amuritzak
ederto esan du: "bada garaia
noizbait dezagun guda hori gal

edo irabaz".

Posible izan daitekeela
pentsatu nahi izanez gero, or-
dea, erramenta-kaja batekin
hasi geure etxea eraikitzen eta
kompetentzia gogorrean aritu
behar izango dugu dagoene-
koz etxorratz erraldoiak erai-
kiak dituzten gaztelania eta
frantsesarekin. Bukaerarako
helburua normalizazioaz hitz
egiterakoan ez bait daiteke izan
honako hau besterik: Albace-
teko umeak nahiz eta frantse-
sa eta ingelesa jakin gauza
guztien gaintetik espainolak
izango diren moduan, ba Eus-
kal Herrian jaiotako umeak ere
gauza guztien gaintetik eta
zenbat gura hizkuntza jakina-
gatik euskaldun izatea nor-
maltasun osoz bere bizitza
osoan. Hori besterik ez!

Atalataikoan

BIDEO-EMANALDIA

Printzesa ezkongai

Tokia: Monterron kultur etxea


Eguna: maiatzak 11

Ordua: arratsaldeko 4etan

Prezioa: 50 pezeta

Sarrerak: Monterronen

Antolatzailea: Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea



• Eusebio Gomez •

Musakolako LKAko zuzendaria

Eusebio Gomezen Opel Kadettak lau urte dauzka, eta denbora horretan ez du inolako aberiarik izan. Autoa ondo ibili arren Eusebiok ez dio jaramon handiegirik egiten, "Noiz behinka garbitzen dut eta olioa aldatu. Mekanikaz ez dakit ezer, ozta-ozta gurpila aldatzen". Bakarrik doanean, irratia jartzen duela zioen Eusebiok, baina ez beste norbait alboan daramanean, "Lehen kaseta ere baneukan, baina lapurtu egiten dituzte eta orain bakarrik irratia jarri diot". Lapurreta eta guzti, Eusebiok ez omen du auto-stop egiten duen edonor eramateko eragozpenik izaten.



Daniel Lasagabaster

TXANPA

**Motor hau
ZUREA
izan daiteke**

Zure erosketak TXANPAN egiten badituzu, guk emango dizugun txartelaren numeroak uztailaren 9an egingo den ONCeren zozketako lehen sariaren azken bost zenbakiekin bat badatoz, YAMAHA motor eder honetan irtengo zara.

Sartu barrura,
irten motorrean

Yamaha
Artistic
Sec Jog

Aramaion bizikletan, Elorza zenaren omenez

Oraingo honetan zapatuan eta domekan Arrasaten eta Aramaion mendi-bizikletan ibiltzeko parada polita izango dugu. Badakizu erropa eta bizikleta prestatu eta ordu pare bat martxan.

Musakolako jaiak: larunbata, 9.30etan

Asteburu honetan eta gaur bertan, hasiko dira aurtengo San Isidro famatuak. Antolaztaileek iazkoari segida emateko, aurtengoa ere bizikleta ibilaldi bikaina prestatu dute: hasi Kiroldegian bertan hasiko da. Gero, Arrasateko kaleetatik zehar, Lan Kide Aurrezkia-Olandixo eta Muru aldera hartuko dute. Naparrena heldu eta Untzillara. Un-

tzillatik Apotzarako pista batetik Apotzara eta gero Aretxabaletara. Guzti hori menditik, gurdibide zaharretatik barna.

Aretxabaletatik Urkulura (hamarretakoa) eta gero Larriño-Bedoña-Arrasate. Beraz, badakizue ibilaldi erraza izango da baina, hala ere, kaskorik ez ahaztu.

Aramaioko omenaldia: domekan

Beharbada hauxe izango da asteburuko plater nagusia. Bizikletazale handia izan zen Elorzari omenaldia eskaintzea pentsatu dute bertako Orixol Txirrindulari Elkartekoek.

Horretarako honako ibilaldi hau prestatu dute:

Hasiera: 9.30etan Aramaioko Plazan; onena autoz



joanez gero, Kiroldegi inguruan uztea berebela, gero duxteatu eta aldatzeko.

Plazatik irten eta Arrasaterantz hartu eta saihesbidera sartutakoan eskumatara bide bat hartzen da, Barajuenera iristeko. Bajonetik Azkoagara jaitsi, errepidetik eta Zabalara hartzen den tokian bertan, gorako pista hartu, Asensio-San Adrianera heltzeko, eta ostean Kurtzeta gainera. Kurtzetan

bidea zeharkatu eta Oletarako bidetik San Kristobalen izango gara. San Kristobalen hamarretakoa prestatu dute: ondo etorriko jaku salda bero-beroa, edo dagoena eta hor konpon.

San Kristobaletik sekulako aldapa igo eta gainekaldetik Etxan (Etxaguen) aldera hartu, Ipurtotz baseritik auzoraino. Hemendik Tellamendira eta Tellamenditik Aramaiora.

Ibilaldi honek gutztira 25 km. izango du: 9.30etan urte-nez gero 12.30etan edo ordubatean Aramaiora heltzeko moduan izango gara. Badakizue euri asko egin du eguntan eta lokatz ugari izango da bazterretan: kaskoa ez ahaztu eta aldatzeko erropa ere ekarri.

Igandean ikusiko dugu elkar. Domekara arte!

K. U.

CITROEN ZX BERRIA TXAPELDUN JAIOA



Citroen ZXak, Paris Dakar munduko Rallierik gogorreneko irabazleak, Dakarreko oroigarri ahaztezina emango dizu. Zatoz bila. Citroen banatzaile guztiak asteburuan zabalik.
CHAPIME TAILERRAK.

**Maiatzaren 18 eta 19an
(Larunbata eta igandea)
zabalik**

ADI!

Ikastolako gurasoak, irakasleak, euskaltzaleak...

Lehen

EUSKAL HIZTEGI

ENZIKLOPEDIKOA

Badator berehala

LUR ARGITALETXEA

8 ale, 120.000 hitz, 500 mapa, 1.500 marrazki, 8.000 argazki

INFORMAZIOA:

Lurdes Berasategi, J. L. Iñarra kalea, 30. Tfnoa: 79 20 19

Konpromezu barik, EUSKAL HIZTEGI ENZIKLOPEDIKOAri buruzko informazioa jaso nahi dut

Izen-deiturak

Helbidea

Herria Tfnoa:



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Golain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, O1170 LEGUTIO

Aste gazte


Gazteen %95ak positibotzat jo du "Póntelo, pónselo" kanpaina. Kanpaina honek gazte-txoen haurdunaldiak eta sexu-transmiziozko eritasunak prebenitzea zuen helburu.

Egindako azterketa baten arabera, onarpen-maila ikasketa mailarekin proportzionalki igotzen da, hiri txikietako oinarriko ikasketak dituztenen artean izanik onarpen-mailarik bajuenak.

Cejota, eh! Aldizkaria.

Ikastaroak

• Euskal Herriko Unibertsitateko Udako X. Ikastaroak. 15 ziklo ezberdin: Zuzenbidea eta Gizarte Zientziak, Medikuntza, Ingurgiroa, Euskal Filologia eta Literatura, Psikologia, Elikadura, Historia, Arkitektura, Ekonomia, Kirola,



Hizkuntzak, Hezkuntza, Informatika, Zientziak eta Topaketak. Ziklo bakoitzean hainbat ikastaro antolatuta dira. Matrikula egiteko epea: ekainaren 7ra arte.

Bekak

• Euskal Kirolariak trebatu eta proiektatzeko bekak eta laguntzak. Baldintzak: edozein kirol modalitatetan urtetan ibiltzea, Euskal Herriko edozein Federakundetako kide izatea eta dagokion kirol modalitateko euskal selekzioan parte hartzea. Dirulaguntza: gehienez 1.300.000 pta. Epea: maiatzaren 31ra arte.

Lanpostu-deialdiak

• Gipuzkoako Foru Aldundiak honako lanpostu hauek (funtzionariak) betetzeko deialdia egin du:
- Sute-Iraungipen Zerbitzurako 2 arduradun (erdi mailako teknikariak).

- Prebentzio eta Interbentzio-Laguntzailetarako 4 Tekniko.

- 2 Sarjentu.

- 16 Suhiltzaile.

Oinarriak: 91-5-2ko EHAAn.

• Beasaingo Udalak "Antzizar" Kiroldegirako Harreralari lanpostua betetzeko deialdia egin du. Oinarriak: 91-04-26ko EHAAn.

Lehiaketak

• Gaubeako Harana III. Argazki Lehiaketa. Gaia; Gaubeako Harana. Koloretan ala zuribeltzean. Sariak: 40.000, 30.000, 20.000, 10.000 pta. eta garaikurrak. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 19.

• "Nafarroako Jaialdia. Abuztua" Kartel-Lehiaketa. Teknika librea. Neurriak; 70x100. Sari bakarra: 350.000 pta. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 20.

• "Udaberria" VII. Olerki-Lehiaketa. Euskaraz

edo gazteleraz. Gaia eta errima libreak. Hizkuntza bakoitzeko 50.000 pezetako sari bakarra. Lanak aurkezteko epea: maiatzak 31.

Lan-Ihardunaldiak

• Euskadiko Lan-Ihardunaldietarako inskripzio-epea astelehenean (maiatzak 13) zabaltzen dela gogorarazten dizuegu. Lekua lortu nahi duenak badaki azkar ibili behar dela.

Jaiak

• Asteburu honetan, maiatzak 10, 11 eta 12, Musakolako Jaiak. Dantzaldiak, txokolatadak, bigantxak, rock-jaialdia, herri-kirolak...

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Fotokopiak
Enkuademazioak
Planoen erreproduzioa
Ofseta

Ferrerias 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

ETXEBIZITZAK

- **Bilbon etxebizitzaren batean logela liberik ezagutzen baduzu**, deitu 76 16 68 tfnora.
- **Bi oheko logela alokatzen da**. Tfnora: 79 07 73.
- **Pisua salgai Iturriotz kalean**. 89m², hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua, dena kanporuntz. Dei egin 8etatik 10etara 79 76 56 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Obenerrekan**. Guztiz berriztua. Egongela, bainugela, sukaldea eta logela bat jantziak. Beste bi logela. Trastelekua. 78m². Bakarkako berogailua. Ganbara. Deitu inongorik gabe 79 98 83 tfnora. Gaueko 8etatik 10k bitartean.
- **Uribe auzoan etxebizitza salgai**. 107 m², garajea, trastero eta ganbara. Dei egin gauean 79 34 23 tfnora. edo denda orduetan 79 98 94 tfnora.
- **Erguinen etxebizitza salgai**. (Garajea aukeran). 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua. Bista ederrak. Gas naturala. Tfnora: 79 93 42.
- **Naturazaleok: hondartza ondoan dagoen apartamendu-estudioa alokatzen dut**. Paraje naturala. Guztiz ekipatua. Vera-n (Almeria) Harremanetarako jo 94- 467 47 07 tfnora.

LANA

- **Emakumea etxeko lanak eta umeak zaintzeko prest**. Tfnora: 79 65 83.
- **Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke**. Tfnora: 79 87 88.
- **Pertsona kualifikatua behar da nutrizio programak saltzeko**, 23 urtetik gorakoa. Dei

egin arratsaldeko 3.30etatik 7.00etara 77 14 81 tfnora. edo joan Nao de Santiago kaleko 4. era.

- **Jaun-andereok:**
-Egunean hiru ordu libre eta telefonoa badituzu.
-Beste edozein iharduerarekin bateragarria.
-Irabaziak: 100.000tik 300.000 pta. hilean, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzan.
-Aurrez ordua hartuta bakarrik. Deitu 77 14 81 telefonoan 4etatik 7etara.
- **Euskarazko klase partikularrak emateko irakaslea behar da**. Tfnora: 79 49 18.
- **Estetika ikasketak bukatu ditut eta lanerako prest nago**. Tfnora: 79 19 20
- **Gizon gaztea lan egiteko prest**. Egun erdi, goizez. Dei 79 75 43 tfnora. Jesus.
- **Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke**. Dei egin 15.30etatik 17.30etara. Tfnora: 77 08 15. Mikel.
- **Tailer batean lan egingo nuke mekanika aprendiz bezala**. Tfnora: 79 96 10.
- **Ileapaindegi batean egingo nuke lan**. Ikasketak bukatu ditut. Tfnora: 79 56 36.
- **Umeak zaindu eta etxeko lanak egingo nituzke**. Tfnora: 79

SALEROSKETAK

- **Bost laguntzako Hergo markako karabana** abanze eta guzti salgai. Tfnora 78 17 88.
- **Egoera onean dagoen Renault 6 GTL bat erosiko nuke**. Lanorduetan 77 09 40.
- **R-21, 2l Turbo autoa salgai**. 38.000 km, garajea lo eginda. Tfnora: 79 34 23, 79 98 94
- **Karro-denda salgai**. Alpen-Kreuzer GT modelokoa (2 logela, 6 pertsonarentzat) gainerako guztiekien. Tfnora: 79 66 31.
- **Amstrad Cpc 6128 kolorekoa salgai**. Inprimagailua, arkatx optikoa, ramdisk, jokoak, testu prozesatzailea, musika, marrazkiak. Aldizkariak eta liburuak ordenadorearekin

ematen ditut. 60.000 pta. Dei egin bazkal orduetan 79 62 94 tfnora.

- **Stratocaster-en kopia saltzen da prezio onean**. Interesatuak dei egin 79 36 83 tfnora. 13.30etatik 15.00ak bitartean edo 22.00etatik aurrera, astean zehar. Patxi.
- **Teoría elemental de grupos" E. Bujalance-na eta "Anillos y cuerpos conmutativos" Jose M. Ganboarena salgai**, (zientzia zehatzak), berri-berriak. Dei 79 92 29 tfnora. 20.30etatik aurrera.
- **Karrerako bizikleta salgai**. Arina, polita, gutxi erabilia. Pezio interesgarria. Tfnora: 76 32 69
- **Algebra liburuak salgai**. (UNEDen Zientzia zehatzak karrerako egokitze mailan erabiltzen direnak). Estrenaitu barik eta prezio onean. Dei egin iluntzeko 8.30etatik aurrera 79 92 29 tfnora.
- **Bederatzi hilabeteko txakurra salgai**. Informazio gehiagorako dei 79 82 91 (Tomas) edo 79 49 49 (Iban) telefonoetara.
- **Egoera onean dagoen bateria merkea erosiko nuke**. Dei egin 8etatik aurrera 79 52 31 tfnora.. Iban.

DENETARIK

- **La Merced-eko ikasle ohio afaria dugu** maiatzaren 11n. Eman izena Hire liburudendan.
- **Ohe biko sofa, itxurazkoa, koltxo eta guzti**, eraman alde emango nuke. Dei 79 05 91 tfnora. Nahi duenak eraman.
- **Eguerdiko sei t'erdia dira. Arrozesnea edarra edarra, edarra dago**. Urbian euria ari du, baina, Matxinbentan aterri. Gorantziak. Aitziber zer moduz Goñin? Jo ta fuego "Txarabeltz" sektorea.
- **Irlandatik zuzenean: Kaixo! Hemen gaude** Guinnessaren menpean askatu ezinak, ea zuek kalimotxo kupela bat bidaltzen diguzuen. Laster bueltan izango gara txikiteo gudaria egiteko. OK. (Aitziber eta Miren). Gora Euskadi!



**ARRASATEN
HILDAKOAK**

Gabarain Azurmendi Cesareo,
apirilaren 30ean. 55urte.

Uribesalgo Erostarbe Jose Mari,
maiatzaren 2an. 64 urte.

Zaparain Ugarte Jesus,
maiatzaren 3an. 71 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnora: 77 08 15

Zer nahiago?

Garbiñe Aramendi Hostalekoa

- **Bazkariak ala afariak?** Bazkariak. Lan gehiago izaten da, baina gero kalera azkar ateratzeko hobe da.
- **Pintxo hotzak ala beroak?** Beroak, beroak.
- **Goiza ala arratsaldea?** Arratsaldea, jai izaten dut eta.
- **Ardo zuria ala gorria?** Gorria.
- **Ogi normala ala integrala?** Etxean integrala, baina hemen normala jaten dut.
- **Zerbitzatzeko gizonaekoak ala emakumezkoak?** Berdin zait.
- **Rock-a ala trikitixa?** Trikitixa, gainera azpeitiarra izanik...
- **Pianoa ala bibolina?** Pianoa entzutea atseginagoa da.
- **Marino ala Indurain?** Marino.
- **Tabako gorria ala beltza?** Gorria erretzen dut.
- **Zinea ala antzerkia?** Zinea.
- **Liburuak ala egunkaria?** Egunero egunkariari pasadtxoa ematea gustatzen zait, liburua baino errazago irakurtzen da.
- **Mendia ala hondartza?** Mendia.
- **Tabernak ala pub-ak?** Tabernak.
- **Eskumuturrekoak ala belarritakoak?** Berdin zait, denetarik erabiltzen dut.
- **Kontuak eskuz ala kalkulagailuz?** Eskuz hobeto egiten ditut.
- **Zintan ala diskoan?** Berdin.
- **Uda ala udaberria?** Aurtengoa ez doa batere ondo, baina gustatzegatik gehiago gustatzen zait udaberria.
- **Erlojua, orratzduna ala digitala?** Digitala.
- **Ihateriak ala Maritxu Kajoi?** Guretzat antzerakoak dira biak, afari ugariekin. Beharbada Maritxu Kajoi hobe da guretzat, jendeak lehenago aldegiten duelako.
- **Arrasate ala Azpeitia?** 20 urte daramat hemen, baina gustora nagoen arren, Azpeitia nahiago.



Igarkizunak

Animaliak

1. Usaimen handiko aberea etxe barruko ehiztaria, ez baduzu zaintzen sukaldea jaki goxoen harraparia.

2. Bi behi behi baten atzean bi behi behi baten aurrean behi bat bi behiren erdian. Zenbat behi dira denen artean?

3. Batzuk dira hegalariak besteak korrikalariak, harrapatzen baditu katuak uzten ditu marraskatuak.

4. Etxe-zaindari edo ehiztari edo itsuen lagungarri; mehea nahiz gizona gizonaren laguna. Nola du izena?

5. Beeka eta pozik larreetan hazi nintzen; esku-hankak loturik jantzia didate kentzen, eta nire ileaz gero zu ederki janzen.

6. Nire etxeak ez du ez leiho ez aterik, baina hil egiten naiz itenez gero handik.

7. Ez naiz saguen ahaide ezta katuen senide bai, ordea, gizakiaren adiskide; eta uxatzen dut lapurra naizelako.

Txakurra.
Txakurra, 5 = Ardia, 6 = Arraina, 7 =
1 = Katua, 2 = Hiru behi, 3 = Sagua, 4 =

Felipe
Arrizabalaga
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE



Musakolako Agarre-Etxebarriko lurrak urratzen, 1959.

M

aria
Garai
Maka-
tze-
nakoa
zen
izatez,
baina

Musakolako Agarre-Etxebarri baserrira ezkondu zenetik, han bizi izan zen Ignacio Egidazu Maxuene senarra eta lau seme-alabekin. Makina bat lan egin zuen Mariak

baserrian, denetatik gainera. 1959ko martxoaren 12 honetan, idiak uztartu, baso burdinaria ipini eta Karmen alabarekin batera, gaur egun Santa Teresa Ikastola inguruko lurrak urratzera aterata zen. Ama aurrean eta alaba atzean, akuiluaz aida batean. Musakola urte haietan hasi zen aldatzen, San Antolingo etxeen eraikitzearekin batera. Argazkian agertzen diren parajeak, berriz, lehengoan zeuden. Karmenen atzeko soroetan (Antoñakoak) kiroldegia

dago gaur. Atzerago, Arruena baserri desagertua zegoen. Hantxe daude gaur Maxi-Eroski eta Roneoko biltegia. Begirada zorrotzuz gero, Aranguren ere ikusten da. Honantzago etorritz, Musakolako labaderoaren inguruan izerak eguzkitan, Mariaren atzeko etxean eskola nazionalak zeuden orduan, gaur jubilatuen etxea. Atzeraxeago Axerikua zaharra eta zelaia. San Antolingo Tercero argazkilariak egin zuen erretratoa.



HI-FI CARS SYSTEMS

**AUTORAKO
ELEKTRIZITATEA**

- Autorako soinua
- Alarmak
- Ekipamendua

Legarre Pabilioia, etxebehea,
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE






KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

LA MERCED IKASTETXEA

"LA MERCED" IKASTETXEA



- 2. maila -

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak

Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

IRAKASLEAK klasea hasten du. Gaur magiari buruz mintzatuko da, lehenengoz magia eta siniskizunen bizpahiru adibide emonez. Adibideetara iristen denean dio zenbait herritan jendeak lurretik hartutako harri koxkorrak, ur bedekintuan igurtziz edo harri bakoitzeko hiru otoi eginez, hagineta mina eta iustiaren aurkako babesgarri zituztela etxean edo patrikan gordez gero.

IKASLEAK aulkietan daude eserita eta entzun egiten dute. Leihotik haruntzago udaberria dago etorria. Gela nahiko iluna da eta hitz egiten duenaren begietan elkartzen dituzte bereak. Baten batek lepoa okertzen du, beste batek sapaira edo hormara dago begira.

IRAKASLEAK hitzez betetzen du gela. Esaten du magia ez dela soilik aintzinako kontua, gaur egun ere gertatu egiten dela, eta, ustearen kontra, guk geuk ere egiten dugula sarri. Aspaldiko apunte batzuk urteetan zehar armarioan gordetzea, esaterako, aittatzen du adibide legez.

IKASLE BAT harritu egiten da, apuntearen aipamen hori berezi xamar iruditu zaiolako. Irakasleak ez ditu gauza arruntagoak aittatu, opariak, gurekin daramatzagun argazki edo eraztunak, leize zuloetara egiten diren bidaiak ere ez. Gaurko siniskizunen adibide zein jarri eta apunte batzuk. Orduan apunte horien atzetik zerbait badela igerrri egiten du. Ikasle bikote bat hirian paseo irudikatzen du ibai ondoan arrai ilunei begira, kafetegi baten barruan haiek bakar bakarrik Sartre edo Levi -Straussi buruz hizketan. Logela bat etortzen zaio burura eta hantxe bikotea, bata idazmakinarean aurrean, bestea zerbait belarrira xuxurlatzen. Imagina dezake arrats ordu mordo hura zerbait ohean etzanda apunte horiek lantzen kafearen poderioz, edo dutxan amodioa egiten ezertaz pentsatu barik.

IRAKASLEAK antzematen du ikaslearen iker-begirada. Etenalditxo bat dago bere mintzaldian. Eta gauza guzti hauek gogoratzen dituen bitartean, leihotik begiratzen du etorritako udaberria: Orduan konturatu egiten da ikasgelan kafe usaina dagoela.

Jon Ayastui



**ARANBURU
COTEMAR**

Garraio agentzia



Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

ALTUNA

*Lurrindegia
bisutegia
drogeria*

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23

13 ASTELEHENA

- 18.30 Teletestua. Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 Bapirulauke, umeen saioa, aste honetan S. Andresko herri eskolan grabatua.
- 20.00 Berriak, asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezen eskutik.
- 20.15 Mondrasport, ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabariak zuzenduta.
- 20.30 Saltsa Maltzan, Jaione Olabek txirla beteak biperradarekin prestatuko ditu.
- 20.45 Erreportaia: Arrasateko Lantegi Eskola.
- 20.50 Berriak (errepikaldia)

14 ASTEARTEA

- 11.00 Teletestua.
- 12.00 Bapirulauke (bezperakoa)
- 12.30 Berriak (bezperakoa)
- 12.50 Mondrasport (bezperakoa)
- 13.05 Saltsa-Maltzan (bezperakoa)
- 13.15 Bapirulauke (errepikaldia)
- 13.45 Erreportaia (bezperakoa)
- 14.00 Berriak

15 ASTEAZKENA

- 19.00 Teletestua, era guztietako iragarki eta abisuak
- 20.00 Berriak, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albisteak.
- 20.20 Zenbat buru, hainbat aburu, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen mahaingurua. Gaia: Belarjaleak eta errejimenak. Gonbidatuak: Alberto Altube, Jose Luis Armentia, Jose Mari Arginzoniz eta Patxi Montero.




21.10 Berriak (errepikaldia)

16 OSTEGUNA

- 11.00 Teletestua (bezperakoa)
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Zenbat buru, hainbat aburu (bezperakoa)
- 13.10 Berriak (errepikaldia)

17 OSTIRALA

- 19.00 Teletestua
- 20.00 Berriak, ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 Erretratoa, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Jaime Zubilaldea, "Torres", Mondragoeko azken atabalaria.



20.50 Musikantoi, Patxi, Pepe, Asier eta Pepek egiten duten saioa. Berriak (errepikaldia)

18 LARUNBATA

- 11.00 Teletestua
- 12.00 Berriak (bezperakoa)
- 12.20 Erretratoa (bezperakoa)
- 12.50 Musikantoi (bezperakoa)
- 13.30 Berriak (bezperakoa)

Onduline **TXOMIN HERIZ**

URALITA eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak

Otzaratzarrak

Giltzak gordetzeko armairuak

Erremintak eramateko gurdiak

Erremintak gordetzeko armairuak

Lan egiteko aulkiak

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76



MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

Telebegi

Eztabaida sinplea bezain sakona da. Telebistek, eta batez ere herri telebistek kultura eta herritarren zerbitzura egon beharko lukete eta alderantziz, arau komertzialei lotuak edo hobeto esanda, arau komertzialek sortarazten dituzten esklabutza ekonomiko, ideologiko eta abarrei lotuak. ATB herri telebista komertziala da. Zilegi izango al litzateke, ATBk, ikusle gehiago lortzearen aitzakiaz, eta beharraz, Rambo edo Rocky filmak emititzea, nahiz eta horren produktu kaskarrak izan?

Ni baiezkotan nago, eta are gehiago, filma, dokumental eta beste hainbat gauzatarazabaldut beharko duela bere eskaintza. Publizitateak dirua dakar, diruak gauzak hobetzeko aukera maila guztietan, baina publizitatea izateko jendeak ikusi egin behar du telebista. Nork daki, hilabete batzuk barru, filme, dokumental, marrazki bizi-dun edo zer ikusteko aukera izango dugun ATBn, Falkon Krest emititu behar bada ere!

Andoni Urzelai



Udal hauteskundeak ATBn

Maiatzaren 26ko Udal Hauteskundeak datozela eta, ATBk egokitu egingo du programazioa hauteskundeen inguruko berri zehatzagoa emateko asmotan.

- **Alkategaien aurkezpena.** Joan den asteazkenetik hasita, ATBk Mondragoeko alkategai guztiak banan-banan aurkezteari ekin dio. *Berriak* albistegiaren amaieran aurkezleak elkarrizketa egingo die zerrendaburuei. Ordena, beste toki batzuetan bezala, aurreko Udal hauteskundeetan botu gutxien atera zituztenetatik hasita.

Maiatzak	8	Javier Argomariñ	(PP)
"	10	Joseba Ugalde	(EB)
"	13	Arrate Landa	(EMK-LKI)
"	15	Aitor Orobengoa	(EE)
"	17	Jose Mari Loiti	(EAJ)
"	20	Pedro M. Ruiz de Azua	(EA)
"	22	Nekane Iglesias	(PSOE)
"	24	Xabier Zubizarreta	(HB)

- **Bi mahainguru alkategaiekin.** Lehena maiatzaren 22an eta bigarrena maiatzaren 29an, hau da, hauteskundeen emaitzak jakin ondoren.
- **Bozketa eguneko saio berezia.** Maiatzaren 26an, ATBk programa berezia egingo du gaueko 10.30etan, egunari buruzko erreportaiak eman, Mondragoeko emaitzak azaldu, zinegotzi berrien izenak jakin erazi eta zerrendaburu guztien eritziak plazaratuz.

Telebelarri

◆ "Kanpotik ekarritako hautagai bat jartzea ez da kapritxo. Asmoa da 4 urte barru mondragoetarrak eurak aurkeztea".

Javier Argomanizek
Berriak saioan.

◆ "Gutxienez Autonomi Elkarteko Hauteskundeetan lortutakoa espero dugu".

Javier Argomanizek
Berriak saioan.

◆ "Aldaketa handiak ikusi ditut Arrasaten, nire etxean ere bai, baina bigarren egunean dena berdin ikusi dut".

Eduarne Iturbek *Berriak*
saioan.



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Burua argi izango duzu eta edozein egoeraren aurrean eztabaidarako prest azalduko zara. Ez duzu besteen moteltasuna jasateko egonarririk izango eta bakarrik abiatuko zara edonora gero berriz karakolaren bila bueltatzeko. Haserrea nagusituko da zuregan.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Borondate oneko egongo zara eta jatorragainera. Aspaldidanik zeneuzkan asmo horiek betetzeko gai izango zara eta gustora egongo zeure buruarekin. Baliteke urduritasuna ere igartzea, baina ondo dominatuko dituzu.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Bizipoza eta egonezina nagusituko dira Sagitarioongan. Ipurtarin egon zarete benetan eta baliteke zuen ingurukoren baita nerbioak dantzan jartzea. Inorengana jo aurretik bestearen alimoaz ohartea komeniko litzaizueke.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Borondatea eta egonaria izango dira zuregan nabarmenduko diren baloreak. Irudimenez gainezka egongo zara gainera eta ideia orijinalak izango. Egoera fisikoa ere ezin hobea izango duzu, Tauro, eta ez zara, ez, bat ere makal egongo.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Negozioren batean egon edo ekitekotan bazau, zuhur jokatzeko komeni zaizu, norbaitek ziria sartu nahi izatea suerta liteke eta. Mesfidantza oso nabarmena ez izaten saia zaitetz, errazago harrapatuko duzu azeria.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Burugogor egongo zara eta ezin izango da zurekin ezertarako kontaktu zeurearekin atera ezean. Besteen eritziak ere aintzat hartu beharko zenituzke Capricorn. Zeozeren hutsunea nabaritzen duzu eta ez daukazu oso garbi zerena.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Sentibera zaude eta atsegina izango zara mundu guztiarekin. Jolaserako gogoia izango duzu zauden tokian zaudela ere eta baliteke norbait bere onetik ateratzea. Ez zaitetz damutu ezertaz ziuraski horren beharra izango bait du.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Liluragarri ego-go zara, bai fisiko bai izakera aldetik. Norbait ligatzeko asmotan bazabiltza, oraingoa duzu une egokia, Libra. Laguna duzenon harremana erabat zoriotsua izango da komunikazio ezin hobea egongo delako bion artean.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Zeharo arduratuta ibiliko zara inguruarekin. Ohi ez bezala, serio hartuko dituzu eginbehar guztiak eta aurrerateratzeko gai izango zara. Ezezaguna egongo zara Acuario, baina, aholkulari ezin hobea ere bai. Ikasten bazabiltza aprobetxa ezazu egoera.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Etxearekin eta etxearekin baino ez zara arduratuko. Baliteke gehiegizko ardura izatea eta bertakoek lelotzat hartzea. Bete ezazu zure eginbeharra eta saia zaitetz besteak baketan uzten.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Gogor azalduko zara besteen aurrean eta ez diozu inori zeureganatzen lagako. Guztiz izango ez bada ere, zertxobait irekitzea komeni zaizu hurrengo baterako, Skorpios, noizbait besteen beharra suertatzen bait zaigu guztioi.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Jende ugari ezagutuko duzu datozen egunetan lana dela medio eta baliteke norbaitek begi onez ez hartzea. Zuhurra izan beharko duzu inork ziririk ez sartzeko. Alde egin ezazu jarrera positiboa azaltzen ez dizuenengandik.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA




DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE

Jose Aranzabal

Lehen 



- Sukaldeko altzariak
- Mahaiak, aulkiak...
- Sukaldeko tresneria

FAGOR



BERRIZ ZUEKIN GURE DENDA BERRIA IREKITZEAN
Bañez doktorea 2, Tfnoa: 79 18 92, Faxa: 77 14 50

iKER

xey



SUKALDE-ERAKUSKETA:

Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE